

Inportazioko poesia edaten Egiako Le Bukowskin

G.U.G.

POETA IZENA daukan taberna aukeratu zuten Susa argitaletxe-ko kideek Munduko Poesia Kaiarak bildumaren labealdi berriko hiru liburuak aurkezteko. Donostiako Egia auzoan dagoen Le Bukowskin round bikoitzean eman zuten argitaratu berri dituzten Emily Dickinson, Carlos Drummond de Andrade eta Miguel Hernándezen liburuaren albistea. Prentsarako aurrena, tabernaren kaleko leihoa zaintzen duen portzelanazko dalmata txakurraren begiradapean; eta arratsean publiko orokorarentzat, hiru poetak itzultzen aritu diren idazleek egindako errezitaldiarekin. Urriaren 16ko arratsaldean, beraz, literatura atsegin dutenentzat Le Bukowski zen egon beharreko lekua.

Poema bat bestearen atzetik edat... barka, entzuten kontzentratuta nengoelako zenbatzerik izan ez nuen jende kopuru nolanahi politaren aurrean aritu ziren errezitatzen Angel Erro, Koldo Izagirre eta Josu Landa. Tabernako eszenatoki rockeroaren hondoan bertsoan aritzeko bezala eserita, Beñat Sarasola kaiera bildumaren zuzendaria gaijartzaile. Punturik ez zen zenbatu munduko poesia txapelketa nagusi honetan.

Bazeukan kontuak bere zailtasuna, hiru poetak oso desberdinak direlako, kasik bestelako laguntzarik gabe aritu zirelako –poemaren baten audioa jatorrizko hizkuntzan eta kantaren bat–, eta errezitaldietara joaten den publikoak ez duelako jakiten une bakoitzean zer egin behar duen –poema bakoitza bukatzean txalo jo behar da? Poema baino lehen? Azken esaldia asmatzen saiatu behar ote du entzuleak?–. Horregatik beharbada, hotz samar zegoen giroari aurre egin behar izan zion Angel Errok hasieran.



Altxa zen baina, eta tonu barnerakoian, lehen konpasetan zalantzati, Dickinson agertu zen tabernara zuriz jantzita. Sarasolak liburuaren sarreran aipatzen du idazle estatubatuarren lana itzultzeak daukan zailtasuna eta Errok, uste baino errazago egin badu ere, Dickinsonekin obsesio txiki bat garatu duela adierazi zuen prentsarentzako aurkezpean; beste bi itzultzaileek ere bizi izan dute eritasun bera, antologo lanaren zati bat ere euren esku egon izanaren ondorioz, seguraski.

Amerikatik atera gabe segi zuen gaualdiak Koldo Izagirrek Drummond de Andraderen poemak errezitatu zituenean. Ahotsa asko behartu gabe lortu zuen brasildarraren hitzak atzeko lerroetan ere entzutea. Kasu honetan itzulpenaren arazoa beste bat izan da: 19 urterekin publikatzen hasi zen idazlea eta 85 urterekin hil. Argitaratutakoa bezalako beste hiruzpalau liburu publikatu beharko lirateke Izagirreraren esanetan, idazleari justizia egitekotan.

Bitxikeriarako ere eman zuen errezitaldi zati horrek, Izagirre mikrofonora hurbildu baitzen tokatzen ez zen momentu batean, Cae-

tano Velosok musikatutako poema baten txanda baitzen. Ikuskizunaren ordena saltatu izanagatik barkamena eskatu zion pasaitarrak Velosori... portugesez.

Eta matiz apaletan zihoan gaua Josu Landa atorra gorri flamenkoz zutitu zen arte, Miguel Hernández taularatzera. Jatorrizko poemaren musikaltasuna euskarara ekartzen asmatzea izan da, berak esandakoaren arabera, itzulpenaren gakoetako bat. Olibazaleak ezaguna hatxe arnastu eta guzti ekarri zuenean baieztatu genuen kezka hori buruan izan duela, baita lana arrakastaz burutu duela ere: jatorrizko hitzekin Paco Ibañezek egindako abestia oso ezaguna izan arren, poema euskaraz lehen aldiz entzutea gaueko une gorenetakoa bat izan zen.

Ekitaldi xumea buelta gehiagorik gabe amaitu zen. Eta hala bukatuko dugu kronika hau ere, handik aurrerakoak egokiagoak baitira artikulu jotidiaztar batean agertzeko. ■

**Gorka
Bereziartua
Mitxelena**

